

# LANAREN LABURPENA

Taldekideen artean botatako ideien artean garailea pakete-ontzia izan da. Hau pisu bloke baten auzokide guztiak erabiliko dituzte banatzaileak pakete bat ekartzen duen bakoitzean eta etxean ez zaudenean paketea erraz eskuratzeko balioko lukeen produktua izango litzateke. Pakete gehiago erostea ahalbidetuko du, ez zarelako etxean egon behar pakete bat entregatzen duten bakoitzean. Dutxan, ohean, oporretan, lan egiten edo kalean bazaude erabili ahal duzu. Hau erabiltzeko modua hau da: mugikorrean izandako aplikazio bat, mugikorra dardar egingo duena banatzaileak interfonoa jotzen duen bakoitzean. Interfono berezi bat izango luke, banatzaileak pakete bat entregatzen duen bakoitzean zure mugikorra dardar egingo duena. Interfono normal bat izango da, hau da, pisu guztietako zenbakiak eta letrak edukiko ditu. Erabiltzaileak onespina ematen duenean, banatzaileari atariaren atea eta ireki dion pertsonaren ontzia irekiko da, denbora tarte murriztu batez. Banatzaileak paketea utziko du eta ontzia automatikoki itxi egingo da.

